



Arartekoaren 2023IR-2641-22 Ebazpena, 2023ko abenduaren 14koa, kexa-espeditente batekin lotutako jarduketari amaiera ematen diona. Hau da kexa-espeditentearen gaia: herritar batek Lanbideri eskatzea berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren etetea, prestazioaren onuradun izateko betekizunak betetzen zituen aldi bati dagokiona, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera azkendu zaiola jakin ondoren, eta aldi horri dagozkion prestazioak erreklamatzea.

Aurrekariak

1-. Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren (EPO) etenaldia berrikusteko eskaera bati emandako erantzunarekin. Kexagilea bera zen prestazio horien titularra.

Kexagilea 2021eko apirilean DSBEa jasotzen ari zen, langabeziako sorospenaren osagarri. Lanbidetik *sms* bat jaso zuen¹ eta bertan baimena eskatu zitzaion bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) izapidetzeko Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean (GSIN).

2021eko apirilaren 16ko Ebazpenean BGDSa aitortu zitzaion; zehazki, hilean 802,13 euro. Kexagileak berak eta haren hiru hurrek osatzen zuten orduan bizikidetz-unitatea, eta orain ere bai.

Interesdunak enplegu-erakunde autonomoari jakinarazi zion GSINek BGDSa aitortu ziola, eta hark eten egin zuen DSBEaren ordainketa, 2021eko maiatzaren 25eko Ebazpenaren bitartez. Izan ere, langabeziako sorospenaren eta BGDS aitortu berriaren diru-sarrerak batuta, gainditu egiten zituen baimendutako gehieneko diru-sarrerak. Ebazpen horretan ez zitzaion jakinarazi bidegabeko prestaziorik jaso zuenik.

2-. Hilabete batzuk geroago, 2021eko abenduaren 28an emandako ebazpen baten bidez, GSINek interesdunaren BGDSa azkentzeko agindu zuen, honako hau oinarri hartuta: "de acuerdo con la información correspondiente al ejercicio 2020 facilitada por la Agencia Estatal de la Administración Tributaria/Haciendas Forales, se ha comprobado que .no concurren en su caso las condiciones para ser considerado en situación de vulnerabilidad económica, atendiendo a la modalidad y

¹ 20/2020 Errege Lege-dekretua, maiatzaren 29koa, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duena (20/2020 Errege Lege-dekretua); lehen xedapen iragankorra, 13. apartatua. Gaur egun 20/2020 Errege Lege-dekretua indarrrik gabe dago. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legeak (19/2021 Legea) indargabetu du.

número de miembros de su unidad de convivencia, según lo previsto en los artículos 7.1b), 8 y 18 del Real Decreto-ley 20/2020, de 29 de mayo”.

Ebazpen horretan zehaztu zenez, interesdunaren bizikidetz-unitateari, bere ezaugarriengatik, urtean 10.714,44 euroko errenta bermatua zegokion, baina haren diru-sarrera konputagarriak 11.125,32 eurokoak izan ziren, 2020ko ekitaldiari buruz eskuratutako informazio fiskalaren arabera.

Araudiak dioenez², betekizun hori betetzen da baldin eta banako onuradunaren urteko diru-sarrera eta errenta konputagarrien hileko batezbestekoa, edo bizikidetz-unitateko kide guztiena batera, aurreko ekitaldian, 10 euro txikiagoa izan bada prestazioak bermatzen duen errentaren hileko zenbatekoa baino, kasuan kasuko modalitatea eta bizikidetz-unitateko kideen kopurua kontuan hartuta.

Oro har, kontuan hartzen diren diru-sarrerak eskaera dataren aurreko urtekoak dira. Premisa horren bi salbuespen daude³, baina kasu horietan ere bidezkoa izango da hurrengo urtean erregularizatzea pertsona onuradunaren edo bizikidetz-unitateko kide guztien urteko diru-sarrera eta errenta konputagarriak kontuan hartuta ordaindutako zenbatekoak, prestazioa aitortu zen ekitaldiari dagozkionak.

Era berean, legearen arabera, aipatutako muga gainditzen bada, BGDSa eten egingo da eta aitortutako prestazio ekonomikoak itzuli beharko dira, kasu honetan gertatu den bezala.

3-. Kexagileak Lanbideri jakinarazi ondoren bere BGDSa azkendu egin zela, erakunde autonomo horrek berriro ekin zion DSBEa eta EPOa ordaintzeari, 2022ko urtariletik aurrerako ondorioekin.

² Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuaren 7.1.b) eta 8. artikulua.

Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legearen 11. artikulua. 2021eko abenduaren 21eko BOEn argitaratua. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2021-21007>

³ Enpleguaren aldeko Gizarte Neurriei buruzko irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege-dekretuak aldaketa egin zuen Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuaren hirugarren xedapen iragankorrean, errentarik ez izateagatik egindako eskaerei aplikatu beharreko salbuespenezko araubideari buruzkoan. Aldaketa egin ondoren, lege testuak hau xedatzen du: “(...) **eskaerak 2021eko abenduaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira, urtean zehar kalteberatasun ekonomikoa suertatu den kasuetan**”.

Hala ere, honako hau adierazten du: “(...) **Nolanahi ere, hurrengo urtean erregularizatu egingo dira ordaindutako zenbatekoak**, onuradun indibidualak edo bizikidetz-unitateko kide guztiek prestazioa onartu zen ekitaldian izandako urteko diru-sarrera eta errenta konputagarrien hileko batez besteko datuei erreparatuta emanak, zerga administrazioek daukaten informazioaren arabera. Horrek, kasu bada, bide emango die errege lege-dekretuaren 17. artikuluan aurreikusitako jarduketei”.

4-. 2022ko irailean, GSINek itzulketa-prozedura bat hasi zuen, BGDS gisa ordaindutako zenbatekoa itzularazteko. Prozedura horretan aurreratu zuen bidezkoa zela titularrak jasotako zenbateko guztiak erreklamatzeko, hau da, 6.417,04 euro, guztira.

Kexagileak, orduan, alegazio-idazkia igorri zuen GSINera. Alegazioak ezetsi egin ziren 2022ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez. Ebazpen horrek adierazi zuen 6.417,04 euro itzuli behar zirela. Ez zitzaion errekurtsorik jarri eta irmo bihurtu zen.

5-. Bestalde, 2022ko urriaren 10ean interesdunak bere DSBEaren espedientea berrikusteko eskaera aurkeztu zuen Lanbiden. Eskaera horretan, bere BGDS espedientearen inguruko informazioa eta dokumentazioa helarazi zion enplegu-erakunde autonomoari, eta eskatu zuen erakunde horrek ofizioz berrikus zezala 2021eko maiatzaren 25eko etete-ebazpena, alegia, BGDSaren aitortzea zela-eta DSBEaren ordainketa eten zuen ebazpena.

Eskatzaileak argudiatu zuen jada desagertuta zegoela etete haren arrazoia, eta bidezkoa zela, berari eta bere bizikidetzaren unitateari kalterik ez egitearren, 2021eko maiatzetik abendura bitarteko DSBEarengatik zegozkien atzerakinak aitortzea (bi hilabete horietakoak barne). Eskaera horren bidez hau lortu nahi zuen: Lanbidek berari diru kopuru bat aitortzea atzerakin moduan, gero diru kopuru horrekin ordaindu ahal izateko GSINekin zeukan zorra.

Berrikusteko eskaera horri erantzunez, Lanbidek Prestazioen eta Gizarteratzearen zuzendariaren 2022ko abenduaren 22ko Ebazpena eman zuen, zeinak hileko zenbatekoari eustea erabaki baitzuen, arrazoi honengatik: "DSBE prestazioa berrikusi da 2021/05/01tik 2022/12/31era; egiaztatu da aldi horretan kontuan hartutako diru-sarrerak benetan jasotakoak direla". Lanbidek ez zuen kontuan hartu, ebazpena ematerakoan, aurretik GSINen diru-sarrera horiek itzularazteko prozedura egin zela, ez zelako betetzen kalteberatasun ekonomikoaren baldintza.

6-. Kexa izapidetzeko onartu eta gero, Arartekoak kasuari buruzko informazio-eskaera bidali zuen Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailera, eta DSBEaren beste hartzaile batzuei ere gauza bera gertatu zitzaiela jakinarazi zion sail horri.

Bere erantzunean, Lan eta Enplegu Sailak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren txostenaren kopia bidali zion Arartekoari. Txosten horretan aurreratu zen administrazio hori prest zegoela kexagilearen egoera berean zeuden DSBEaren titularraren espedienteak automatikoki berrikusteko. Arartekoak erantzun hori bera



jaso izan du erakunde honek antzeko gertaerengatik hasitako kexa-espediente gehienak izapidetzean.

Honako hau da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak 2023ko maiatzaren 25ean sinatutako txostenaren edukia:

“2021ean zehar oker jasotako bizitzeko gutxieneko sarreraren zenbatekoak Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eskutik erreklamatu diren eta zor hori administrazio-bidean irmo bihurtu den espedienteetan bizitzeko gutxieneko sarreraren zenbatekoa leheneratzeko (indargabetzeko) prozedura automatikoa garatzeko erabakia hartu da.

Horretarako, berrikuspen automatikoa hasiko da. Hala, zenbatutako bizitzeko gutxieneko sarreraren zenbatekoa indargabetuko da (0 balioarekin eguneratuko da), bai eta, hala badagokio, bizitzeko gutxieneko sarreraren atzerapenen ziozko ezohiko sarrera ere. Halaber, honako aldi hau berrikusiko da:

- 1) Baldin eta, bizitzeko gutxieneko sarrera zenbatzearen ondorioz, gainerako sarrera zenbakarriekin batera, eten egin bada diru sarrerak bermatzeko errenta, ondoren berriz abiarazi gabe: berrikusi egingo da bizitzeko gutxieneko sarrera zenbatu zenetik 2021-11-30era bitarteko aldia.
- 2) Gainerako kasuetan: bizitzeko gutxieneko sarreraren datu ekonomikoa zenbatu den aldia berrikusiko da, baldin eta prestazioa ordaindu bada eta ondorioak izan baditu datu horretan.

Hala ere, bizitzeko gutxieneko sarreraren hasierako kargaren ostean baldintzak/betebeharrak urratzearen zioz ezarri diren etendura-ebazpenak zilegi izango dira, berrikusitako aldiaren ondorioak izanik.

Egingo den berrikuspenak ez du inola ere aldatuko espedientearen egungo egoera; aitzitik, indarrak gabe utzitako bizitzeko gutxieneko sarreraren zenbatekoen ondorio-aldiaren gainean baino ez du emango irizpenik. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren egungo zenbatekoa aldatu egingo da, soilik baldin eta gaur egun ezohiko diru-sarrera gisa zenbatzen bada eta espedientea emanda badago.

Gaur egun, dirua itzultzeko prozeduren egoera ez da berdina kasu guztietarako: prozedura batzuk ez dira hasi; beste batzuk izapidetze-fasean

daude (kasu batzuetan, alegazioak baietsi egin dira); eta beste batzuk amaitu egin dira, baina erreklamazio-aldian daude. Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak itzulketa-prozedura ebatzita dagoela berretsi duenean eta zorra administrazio-bidean irmoa denean, orduak soilik berrikusitako dira espedienteak.

Horretarako, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari egoera horretan dauden itzulketa-espedienteen zerrenda eskatu diogu. Halaber, informazio hori daukagunean berrikuspen horiek automatikoki egiteko prozesua prestatu dugu. Bestalde, prozesu hori errepikatuko dugu, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak administrazio-bidean zor irmoa duten espedienteen zerrenda berriak igorri ahala”.

7-. Esanak esan, **Lanbidek nabarmen atzeratu du agindu zuen berrikuspen automatikoa gauzatzea, eta GSINek, berriz, aurrera jarraitu du itzulketa-prozeduran**, kexagileari ordaindu zitzaizkion prestazioak itzultzeko eskatuz. Ondorioz, kexagile honen kasuan, GSINekin daukan zorra betearazpen-bidean ere sartu da, eta arrazoi horrengatik **zorraren zenbatekoa hasierako 6.417,04 euroetatik egungo 7.746,88 euroetara igo da**. Kexagileak zorra zatikatzeko eskatu du eta enbargo-eginbideak aurkaratu ditu.

8-. Azkenik, 2023ko azaroan, kexagileak erakunde honi adierazi dio Lanbidek 2023ko urriaren 23ko Ebazpena jakinarazi diola, zeinean berrikusi egiten baita kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) prestazioa, erabaki honetan oinarrituta:

“Eranskin ekonomikoan zehazten den BGDSren prestazioaren datu ekonomikoa ezabatzea; izan ere, 2020ko ekitaldiko ogasuneko datuak gurutzatzearen ondorioz, GSINk 2021eko azaroan BGDSren prestaziorako eskubidea iraungi eta BGDSren bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko prozedurari ekin zion.”

Horrenbestez, DSBEa dela-eta, Lanbidek 2.906,82 euroko atzerakinak aitortu ditu kexagilearen alde⁴. Kexagilearen aldeko zenbateko horren zati bat kexagileak ordaindu gabe zituen beste itzulketa-prozedura batzuk konpentsatzera bideratu du

⁴ Honela kalkulatu da zenbateko hori: deuseztatu egin dira, sistema automatiko baten bitartez, interesdunak prestazioa kobratu zuen hilabeteetan BGDS gisa jasotako zenbatekoak. Beraz, kontuan hartu dira aldi hartan izan zituen gainerako diru-sarrerak, hau da, mantenu-pentsioaren bidezkoak eta langabezia-sorospenaren bidezkoak. Interesdunak ebazpen horren kontrako errekurtsua jarri du, Lanbidek mantenu-pentsioa osorik konputatzeari utz diezaion. Izan ere, frogatu du dibortziatu zenetik bikotekide ohiak ez dizkiola ordaindu hileko pensio gehienak.

enplegu-erakunde autonomoak, eta azkenik 350 euro baino ez dizkio ordaindu kexagileari; diru kopuru hori GSINekin daukan zorra ordaintzeko erabili beharko du.

Horrenbestez, beharrezko diren egitateak eta zuzenbide-elementuak daude, eta horregatik honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-prestazioei buruzko egungo arau-esparrua konplexua da, eta azken hiru urteetan legegintzako berrikuntza garrantzitsuak izan ditu.

Aurkeztu den auzia, hau da, DSBEa berrikusteko eskaera, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen argitan aztertu behar da, indarrean baitzegoen gertaeren garaian. Lege hori egungo 14/2022 Legearen aurretikoa da (14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena).

Era berean, jakina denez, 2021eko abenduaren 16an Diputatuen Kongresuan onetsi zen abenduaren 20ko 19/2021 Legea, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duena. Onespen horrekin berretsi egin zen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretua, prestazio ekonomikoa aitortu zuena.

Bi prestazioen eremu subjektiboa, definizioa eta izaera oso antzekoak direla kontuan izanda, bistan da BGDSa eta DSBEa –beste errenta autonomiko batzuk bezala– bat datozela euren erregulazioaren funtsezko osagai batzuetan, eta horrek administrazio publikoei benetako erronka ekarri die prestazioen kudeaketan, askotariko eraginak dituen gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonengan. Izan ere, betebeharrak jakin batzuk eta izapide administratibo konplexuak bete behar dituzte, euren beharrizan oinarritzeko aurre egiteko behar dituzten prestazio ekonomikokoak ukatu, eten edo erreklamatu ez diezazkieten.

Arartekoak aitortu behar du Lanbidek lan zaila egiten duela DSBEaren eta BGDSaren kudeaketan, azken prestazio hori onetsi zenetik, eta bereziki balioesten du kexa-espeditente hau eta antzeko gertaerak salatu diren beste batzuk ebazteko hark eskainitako lankidetzak.

2-. Aztergai dugun kasuan, kexagileak 2021eko abenduaren amaieran Lanbideri jakinarazi zion BGDSa azkendu zitzaiola. Prestazio hori 2021eko maiatzean aitortu zitzaion. Orduan ezin zen jakin nola jokatuko zuen GSINek hurrengo hilabeteetan. Hortaz, Lanbidek soilik 2022ko urtarriletik hasita ekin ahal izan zion berriro DSBEa ordaintzeari.

Alabaina, gorago aipatu den kalteberatasun ekonomikoaren baldintzari buruzko araudia aplikatuta, 2022ko azaroan GSINek ebatzi zuen kexagileak itzuli egin behar zituela 2021ean ordaindu zitzaizkion diru kopuru guztiak.

Hori horrela, kexagileak bere DSBE espedientea berrikusteko eskaera aurkeztu zuen, azpimarratuz zer nolako ondorioak izango zituen bere diru-sarreraren aldaketa horrek –izan ere, itzuli egin behar zuen 2021eko maiatzetik abendura bitartean BGDS gisa jasotako guztia–. Eskaera horri erantzunez, enplegu-erakunde autonomoak, 2022ko abenduaren 22ko ebazpenaren bitartez, kexagilearen hileko zenbatekoa ez aldatzea dekretatu zuen, eta ez zuen atzerakinik aitortzeko arrazoirik sumatu, honako honetan oinarrituta: “Aldi horretan kontuan hartutako diru-sarrerak benetan jasotakoak direla”.

Aurrean esan bezala, Arartekoak, kexa honetan eta antzeko beste batzuetan, zenbait gogoeta helarazi dizkio Lanbideri, esanez enplegu-erakunde autonomoak erantzun egoki bat taxutu behar duela, tratamendu ahalik eta egokiena eman ahal izateko lehendik DSBEaren titular ziren pertsonentzat BGDSaren onespenuak sortutako egoera bereziari.

Arartekoaren proposamena, Lanbideri jakinarazi zaiona haren esku-hartzeetan, honako hau izan da:

DSBE espediente batzuetan BGDSa onartzeak DSBEaren zenbatekoa aldatzea besterik ez du eragin, eta ez hura etetea edo azkentzea. Horrelakoetan Arartekoak hau proposatu du: Lanbidek, BGDSaren azkentzearen eta itzulketaren berri jakin bezain laster, DSBEaren zenbatekoa berrikus zezala maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 58.3 artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, bertan adierazten baita urtebeteren buruan azkenduko dela DSBErako eskubidea. Zehazki: “3.– Diru-sarrerak bermatzeko errentaren hileko bakoitza jasotzeko eskubidea dagokion mugaegunetik urtebetera iraungiko da”.

BGDSa aitortu ostean eten edo azkendu diren DSBE espedienteen kasuetan, oraingo honetan bezala, Arartekoak Lanbideri proposatu izan dio ofizioz errebokatzea eteteke edo azkentzeko ebazpenak. Horretarako ahalmena ematen dio

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (APAPEL) 109. artikuluan (Egintzak errebokatzea eta okerrak zuzentzea):

“1. Las Administraciones Públicas **podrán revocar, mientras no haya transcurrido el plazo de prescripción, sus actos de gravamen o desfavorables**, siempre que tal revocación no constituya dispensa o exención no permitida por las leyes, ni sea contraria al principio de igualdad, al interés público o al ordenamiento jurídico.

2. Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos”.

Eragindako pertsonen prestazioak eten edo azkendu zituzten ebazpenak errebokatuz gero, berriro ere indar juridikoa izango lukete haien DSBE espedienteek, eta eragindako pertsonak berriro kokatu ahal izango lirateke Lanbidek GSINera haien BGDS eskaerak bidali baino lehenagoko egoeran.

Arartekoaren iritziz, kexa honetan eta antzeko beste batzuetan deskribatu diren kasuak ofiziozko errebokatzearen figura juridikoan egokitzen dira. Funtsean, BGDSa onetsi eta gero salbuespenezko egoera bat sortu denez, beharrezkoa da era berean salbuespenezko neurriak hartzea.

3- Erakunde honek izapidetu dituen espediente gehienei erantzunez, oraingo espediente hau barne, Lanbidek adierazi izan du **berrikuspen-prozesu automatiko bat aplikatuko dela eta pertsonak BGDS gisa jasotako diru-sarrerak ezabatu egingo direla** ukitutako DSBE espedienteetan –zeinetan GSINek erreklamatu baititu 2021ean bidegabeki jasotako BGDSaren zenbatekoak–, betiere zor hori irmoa bada administrazio-bidean.

Arartekoak ezagutu dituen beste kasu eta espediente batzuetan, pertsonak berrikuspena eskatu eta handik nahiko laster berrikusi ditu DSBE espedienteak enplegu-erakunde autonomoak. Horrela, DSBEaren atzerakinak aitortu dira eta ukitutako pertsonak diru kopuru horiek bideratu ahal izan dituzte GSINekin zuten zorra ordaintzera.

Espediente gehienetan, ordea, **aurreikusitako eta Arartekoari jakinarazitako berrikuspena ez da behar bezain azkar egin.**



Lanbidek berandu gauzatu du erabaki hori, eta ondorioz ziurgabetasun eta nahasmendu handia sortu da familia-unitate askoren bizibide bakarra diren gizarte-prestazio horiek jasotzeari dagokionez.

Gainera, GSINekiko zorra borondatezko epean ez ordaintzeak zorra handitzea ekarri du, eta GSINek **betearazpen-bideko erreklamazio-prozedurak abiarazi ditu**. Espediente honetan, zorra premiamendu-bidean sartzearen ondorioz, hasieran 6.417,04 eurokoa izandako zorra dagoeneko 7.746,88 eurokoa da.

Kontuan izan behar da BGDSaren prestazio berria aitortzeak ez zuela ekarri ordura arte jasotzen ziren prestazioen zenbatekoa handitzerik. Gero, BGDS gisa jasotako zenbatekoa erreklamatu zen, baina jasotzeari utzitako DSBEaren zenbatekoak aldatu gabe, eta eragindako pertsonen ahalmen ekonomikoaren galera nabaritu zuten.

Gauzak horrela, merezi du berriz ere azpimarratzea zein den DSBEaren izaera; izan ere, zaugarritasun-egoeran edota bazterketako arriskuan dauden pertsonen oinarritzko premiak asetzeko xedea du, eta, beraz, **prestazio horren hartzaileak hasiera batean zaugarritasun ekonomikoko eta sozialeko egoera bizi duen kolektiboaren parte dira**.

Arartekoaren iritziz, BGDSa onetsi ondoren eta prestazio hori kalteberatasun ekonomikoaren baldintza betetzen ote den zehazteko kontuan hartu beharreko diru-sarreraren arabera arautu ondoren sortu den egoera berezi honetan, Lanbidek neurri egokien bidez erantzun du, baina hori ez da oztopo azpimarratzeko halako neurriak lehenbailehen hartu behar direla, prestazio berriak ahalik eta eragin txikiena izan dezan DSBEaren onuradun izateko baldintzak betetzen zituzten eta betetzen jarraitzen duten pertsonengan. Horrela bakarrik berma daitezke Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak eta oraintsu onetsitako Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri dituzten eskubideak.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak ondorio hauek atera ditu eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailera bidaltzen ditu:



Ondorioak:

Arartekoak poza agertzen du Administrazioak emandako laguntzarengatik eta konponbide egoki bat taxutu delako kexa-espediente hau eta antzeko gertaeren harira hasitako beste batzuk ebazteko.

Hala ere, Lanbidek agindutako neurria berandu gauzatu izanak ondorio negatiboak ekarri dizkie kexagileari eta egoera berean dauden beste pertsona batzuei. Izan ere, arin itzuli behar izan dituzte bidegabeki emandako BGDS prestazioak –zorrari errekarua eta interesak gehituta–, baina ez dute lortu haien DSBE espedienteak horren arin berrikusterik.

Hori dela-eta, Lanbideri gogorarazten zaio lehenbailehen berrikusi behar dituela diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren espediente horiek, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera onartzean eten edo aldatu zirenak, berrikusitako aldian prestazio horren onuradun izateko baldintzak bete dituztela frogatzen duten pertsonen kalterik ez egiteko.